Euskarriak

Maria Aguirrezabal

Ukrainan jaioa, 1998an
Gipuzkoan adoptatua, 2005ean



Ume Alaia elkarteak eman didan aukera baliatuz, haur- eta nerabe-garaian arrastoa utzi zidaten argazki batzuk bildu nahi izan ditut. Era berean, urteotan babestu nauten guztiei eskerrak emateko eskutitz bat ere izan daiteke hau.

Sei urterekin etorri nintzen, Ukrainatik. Ama bakarra zen emakume batek adoptatu ninduen, eta uste dut esan dezakedala ezen, haren baliabideei, prestasunari eta babesari esker, orain neska zorionekoa naizela oso, eta benetan gozazalea.

Urteetan ikusi dut –eta are gehiago orain, eskarmentua pilatu eta lan pertsonal bat egin dudan honetan– euskarri jakin batzuei esker izan dudala modua hazteko, sortzeko eta nire bizitza bizitzeko. Tatiana Cásedak eta José Luis Gonzalok gidatutako talde batean nabil, elkar babesteko talde batean, eta, bertan esan ohi dugun bezala, "emadazu euskarri bat, eta mundua mugituko dut". Zein garrantzitsuak diren harremanak! Harreman sanoak, sostengatu eta babesten zaituztenak, latzean ere loratu ahal izan zaitezen.

Irudiotan, nire haurtzaroaren parte bat ageri da; garai hartan, ama eta biok urtean lau aldiz joaten ginen autoz Bartzelonako CEIBera, Donostia gure bizilekutik zazpi ordura.

Inork ez baleki ere, CEIB zentroak arreta terapeutikoa ematen die 0 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeei, zehazki garapen-zailtasunak dituztenei. Hango langileek hazibide osoan lagun egiten diete adingabeei, haien ongizatea une oro zainduz. Neurozientziarik aurreratuena darabilte, eta



esku-hartze terapeutikoak egiten dituzte ume eta gaztetxo horien heldutasun globala hobetzeko, zorroztasun zientifiko eta kliniko gorenez beti.

Udak

Udan, Bartzelonan ematen nuen astebete, izebekin, osabarekin eta amarekin hiriaz gozatzen, eta La Roca del Vallès-ko udalekuetan beste astebete, gero etxean praktikatu ahal izango nituen gaitasun askotarikoak ikasten.

Orain, gaztea naizela, eta gustuko dudanez gauza berriak probatzea eta leku berriak ezagutzea, begirale aritzen naiz txikitako udaleku haietan bertan, Barbararen konfiantzari esker. Astebete egoten naiz han, urteotan ikasia beste ume batzuei irakasten. Gero, beste astebete pasatzen dut Tossa de Mar-en izebarekin, eguneroko gauza txikiez gozatzen: dendaz denda ibili, kafe bat hartu…

Izebarengandik urrun bizi naiz, baina atsegin dut autobusean Tossa de Marrera joan eta sorpresa ematea: haren irribarrea eta poza ikustea bezalakorik ez dago. Asko maite dut. Amak eta izeba Joanak meritu handia dute; izan ere, CEIB zentroa oso garrantzitsua izan da niretzat, eta, haiek biek hainbeste lagundu izan ez balidate, ezin izango nintzen hara joan. Biak oinarri-oinarrizkoak izan dira orain dakidan guztia ikas nezan, eta eskerrak ematen dizkiet nirekin beti hain txeratsuak izateagatik.

Ilargiraino eta harago ere maite zaituztet biok.

